



1. Antolakuntza eta jarduera

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoa eratu zen.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 53. artikulua aipatzen duen Administrazio Orokorra edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa da Autonomia Erkidegoan lurralde-izaera daukan erakunde bakarra.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jarduera bat dator Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan onartutako eskumenekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sarrera-iturriak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 32. eta 33. artikuluetan daude zehaztuta, eta honako hauek dira:

- a. Foru-aldundiek, lurralde historikoen erkidegoko aurrekontu-gastuetarako egin behar duten kontribuzioaren adierazgarri, Euskal Autonomia Erkidegoari egiten dizkioten ekarpenak.
- b. Euskal Autonomia Erkidegoko tributuen eta prezio publikoen etekinak.
- c. Euskal Autonomia Erkidegoak zergetan ezarritako gainordainak, halakorik ezartzen badu.
- d. Estatuko aurrekontu orokorraren konturako transferentziak eta beste diru-esleipen batzuk.
- e. Autonomia Erkidegoak beste erakunde publiko batzuetatik jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.
- f. Autonomia Erkidegoko Administrazioak zorpetze aldera egindako operazioen emaitza.
- g. Autonomia Erkidegoko Administrazioak jarritako isun eta gainerako diru-zigorren emaitzak.
- h. Euskal Autonomia Erkidegotik datozen administrazio-egintzak ordezeko modura exekutatzetik datozen ordainarazpenak, kautelak izan edo ez.
- i. Eskubide publikoei egindako kalte-galeren ordainak.
- j. Zuzenbide publikoko sarrerei dagozkien interesak.
- k. Obligazio publikoak beteko diren berme modura jarritako kopuruak.
- l. Erkidegoak pertsona publiko edo pribatuei sustapen-helburuekin edo interes publikorako emandako mailegu eta bermeen inguruan egindako kontratuengatik, Autonomia Erkidegoko Administrazioak jaso beharreko kopuruak.

1. Organización y actividad

Mediante el Estatuto de Autonomía del País Vasco se constituye la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Administración General o Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a que se refiere el artículo 53 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, es la única entidad de la Comunidad Autónoma de carácter territorial.

La actividad de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi se corresponde con las competencias asumidas en el Estatuto de Autonomía del País Vasco.

Las fuentes de ingresos de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi se detallan en los artículos 32 y 33 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y son las siguientes:

- a. *Las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales a la Comunidad Autónoma de Euskadi, como expresión de la contribución de los territorios históricos a los gastos presupuestarios de la misma.*
- b. *Los rendimientos de los tributos propios y de los precios públicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*
- c. *Los recargos que pueda establecer sobre impuestos la Comunidad Autónoma de Euskadi.*
- d. *Las transferencias y otras asignaciones con cargo a los Presupuestos Generales del Estado.*
- e. *Las transferencias y subvenciones de otros entes públicos percibidas por la Administración de la Comunidad Autónoma.*
- f. *El producto de las operaciones de endeudamiento de la Administración de la Comunidad Autónoma.*
- g. *El producto de las multas y demás sanciones económicas impuestas por la Administración de la Comunidad Autónoma.*
- h. *Las exacciones, cautelares o no, derivadas de la ejecución subsidiaria de los actos administrativos emanados de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*
- i. *Las indemnizaciones por daños y perjuicios producidos a los derechos de naturaleza pública.*
- j. *Los intereses correspondientes a ingresos de derecho público.*
- k. *Las cantidades que constituyen garantías de cumplimiento de obligaciones de naturaleza pública.*
- l. *Los importes a percibir por la Administración de la Comunidad Autónoma en virtud de contratos referentes a préstamos y garantías concedidos por la Comunidad a otras personas públicas o privadas con fines de fomento o interés público.*



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

- m. Autonomia Erkidegoak diru-laguntzaren bat eman ondoren, helburua edo baldintzak ez direla-eta bete, diru-laguntza horretatik Autonomia Erkidegoko Administrazioari itzuli beharreko kopuruak.
- n. EAEko Administrazioa ahalmen publiko batzuen jabe dela sortutako erlazio eta egoera juridiko batzuetatik eratorritako beste edozein diru-sarrera.
- o. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren jabetzapeko ondasunak edo entitate horien eskubide errealak nahiz pertsonalak erabili edo eskura izateagatik lortutako etekin edo edozein motatako produktu, baldin eta dirutan zenbat balio duten zehatz badaiteke eta ez badaude zerbitzu publikorako erabilerapean.
- p. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak jaraunspen, legatu edo dohaintza bitartez eskuratutako guztiak.

Eusko Jaurlaritza da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra zuzentzen duen organo politikoa. Honakoa da bere osaera 2013ko abenduaren 31n:

- Jaurlaritzaren Lehendakaritza
- Herri Administrazio eta Justiziako sailburua
- Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuneko sailburua.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua
- Ogasun eta Finantzetako sailburua
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua
- Segurtasuneko sailburua
- Osasuneko sailburua
- Ingurumena eta Lurralde Politikako sailburua

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kontabilitatearen kudeaketa Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiten du, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea aplikatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen batez besteko kopurua, 2013. urtean, 41.720 pertsonakoa izan da, jarraian azaldu den bezala banatuta:

- Gobernuko kideak eta goi-kargudunak: 137
- Behin-behineko langileak: 64
- Funtzionarioak: 37.712
- Lan-kontratadunak: 3.807

- m. Las cantidades constitutivas de subvenciones otorgadas por la Comunidad Autónoma, cuya devolución proceda en favor de la Administración de la Comunidad Autónoma como consecuencia del incumplimiento del destino dado a dichas subvenciones o de las condiciones con las que se concedieron las mismas.
- n. Cualquier otro ingreso derivado de relaciones y situaciones jurídicas en las que la Administración de la CAE se encuentre como titular de potestades públicas.
- o. Los rendimientos o productos de cualquier naturaleza derivados de la utilización o disposición de los bienes de propiedad de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como de los derechos reales o personales de que fueren titulares dichas entidades, susceptibles de valoración económica, siempre que aquéllos y éstos no se hallen afectos al uso o al servicio público.
- p. Las adquisiciones a título de herencia, legado o donación, por parte de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El Gobierno Vasco es el órgano político que dirige la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Su composición a 31 de diciembre de 2013 es la siguiente:

- Presidencia del Gobierno
- Consejero de Administración Pública y Justicia
- Consejera de Desarrollo Económico y Competitividad.
- Consejero de Empleo y Políticas Sociales
- Consejero de Hacienda y Finanzas
- Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura
- Consejera de Seguridad
- Consejero de Salud
- Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial

La gestión de la contabilidad de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi se lleva a cabo por la Oficina de Control Económico, en aplicación de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El número medio de empleados de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante 2013 ha sido de 41.720 distribuidos como sigue:

- Miembros del Gobierno y altos cargos: 137
- Personal eventual: 64
- Funcionarios: 37.712
- Laborales: 3.807



2013ko ekitaldian EAeko sektore publikoa osatzen duten erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko ente publikoak, sozietate publikoak, fundazioak eta partzuergoak honako hauek izan dira:

Los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado, sociedades públicas, fundaciones y consorcios que forman parte del sector público de la CAE en el ejercicio 2013 son los siguientes:

Erakunde Autonomo Administratiboak (*)
Organismos Autónomos Administrativos

<u>Erakundeak</u>	<u>Entidades</u>
Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)	<i>Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos (HABE)</i>
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)	<i>Instituto Vasco de la Administración Pública (IVAP)</i>
Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)	<i>Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT)</i>
Emakumearen Euskal Erakundea (EMAKUNDE)	<i>Instituto Vasco de la Mujer (EMAKUNDE)</i>
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia (PLEA)	<i>Academia Vasca de Policía y Emergencias (AVPE)</i>
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (OSALAN)	<i>Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales (OSALAN)</i>
Kontsumoko Euskal Institutua (KONTSUMOBIDE)	<i>Instituto Vasco de Consumo (KONTSUMOBIDE)</i>
LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzua	<i>LANBIDE - Servicio Vasco de Empleo</i>
Lehiaren Euskal Agintzaritza (LEA)	<i>Autoridad Vasca de la Competencia (AVC)</i>

(*) Erakunde autonomoen jarduera beren urteko kontuetan azaltzen da.

(*) *La actividad se encuentra detallada en las cuentas anuales de cada Organismo Autónomo.*

Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoak
Entes Públicos de Derecho Privado

<u>Enteak</u> <u>Entes</u>	<u>Jarduerak</u> <u>Actividades</u>
OSAKIDETZA - Euskal Osasun Zerbitzua OSAKIDETZA - <i>Servicio Vasco de Salud</i>	Osasun-zerbitzuak eskaintzea, bere menpeko osasun-zerbitzuen erakunde publikoen bitartez. <i>Provisión de servicios sanitarios a través de las organizaciones públicas de servicios sanitarios dependientes del mismo.</i>
Euskal Trenbide Sarea (ETS) <i>Red Ferroviaria Vasca</i>	Trenbideko garraio-azpiegiturak kudeatzea eta eraikitzea. <i>Construir y gestionar las infraestructuras ferroviarias.</i>
Energiaren Euskal Erakundea (EEE) <i>Ente Vasco de la Energía (EVE)</i>	Energiaren alorreko ekintzak planifikatzea, koordinatzea eta kontrolatzea. <i>Planificación, coordinación y control de las actividades en el campo de la energía.</i>
Euskal Irrati Telebista (EITB) <i>Radio Televisión Vasca</i>	Irrati- eta telebista-hedabideak. <i>Medios de radiodifusión y televisión.</i>
Finantzen Euskal Institutua <i>Instituto Vasco de Finanzas (IVF)</i>	Finantza-politikaren eta kreditu publikoko politikaren tresna. <i>Instrumento de la política financiera y de crédito público.</i>



<u>Enteak</u> <u>Entes</u>	<u>Jarduerak</u> <u>Actividades</u>
Uraren Euskal Agentzia (URA) <i>Agencia Vasca del Agua</i>	Ur politikak gauzatzea. <i>Llevar a cabo las políticas de agua.</i>
Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentzia (UNIBASQ) <i>Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco (UNIBASQ)</i>	Euskal unibertsitate-sistemaren baitan kalitatea ebaluatzea, egiaztatzea eta ziurtatzea. <i>Evaluación, acreditación y certificación de la calidad del sistema universitario vasco.</i>
Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute <i>Instituto Vasco Etxepare / Basque Institute</i>	Euskara eta euskal kultura sustatzea, zabaltzea eta proiektatzea. <i>Promoción, difusión y proyección del euskera y de la cultura vasca.</i>
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia <i>Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo</i>	Garapenerako lankidetzaren politika planifikatzea, koordinatzea, kudeatzea eta egikaritzea. <i>Planificación, coordinación, gestión y ejecución de la política de cooperación para el desarrollo.</i>

Sozietate Publikoak
Sociedades Públicas

Zuzeneko partaidetza
Participación directa

<u>Sozietateak</u> <u>Sociedades</u>	<u>Jarduerak</u> <u>Actividades</u>	<u>Partaidetza %tan</u> <u>% participación</u>
Eusko Trenbideak, S.A. <i>Ferrocarriles Vascos, S.A.</i>	Bidaiarien eta salgaien trenbideko garraio-zerbitzuak ematea, errepideko materialaren mantentzea barne. <i>Prestación de servicios de transportes ferroviarios, tanto de viajeros como de mercancías, incluyendo el mantenimiento del material rodante.</i>	100
Itelazpi, S.A.	Telekomunikazio sistemak eta azpiegiturak kudeatzea, ezartzea, ustiatzea eta mantentzea. <i>Gestión, implantación, explotación y mantenimiento de sistemas e infraestructuras de telecomunicaciones.</i>	100
Alokabide, S.A.	Etxebizitzak alokatzeko sustapen- eta birgaitze- neurriak gauzatzea. <i>Promoción y rehabilitación de viviendas para destinarlos al arrendamiento.</i>	100
Euskadiko Kirol Portua, S.A. <i>Puerto Deportivo de Euskadi, S.A.</i>	Kirol-portuak planifikatzea, sustatzea, garatzea eta ustiatzea. <i>Planificación, promoción, desarrollo y explotación de puertos deportivos.</i>	100
Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. (EJIE) <i>Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A. (EJIE)</i>	Informatika zerbitzuak eskaintzea. <i>Prestaciones de servicios informáticos.</i>	100
Egailan, S.A. (likidazioan) <i>Egailan, S.A. (en liquidación)</i>	Enplegu-politikaren ezarpen eraginkorra bermatzea. <i>Garantizar la eficaz aplicación de una política de empleo.</i>	100



<u>Sozietateak</u> <u>Sociedades</u>	<u>Jarduerak</u> <u>Actividades</u>	<u>Partaidetza %tan</u> <u>% participación</u>
NEIKER-Tecnalia - Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, S.A. <i>NEIKER-Tecnalia - Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, S.A.</i>	Nekazaritza-, ur- eta ingurumen-zientzien nahiz nekazaritza-, arrantza- eta elikagai-teknologiaren alorretan ikerketak garatzea. <i>Desarrollo de la investigación de las ciencias agrarias, acuáticas, ambientales y de la tecnología agraria, pesquera y alimentaria.</i>	100
Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa, S.A. (likidazioan) <i>Hazi Corporación del Gobierno Vasco para el Desarrollo Rural y Marino, S.A. (en liquidación)</i>	Landa-garapeneraren eta lehen sektorearen alorreko zerbitzuak planifikatzea, ezartzea eta ematea, eta hiri-erlorkoa ez den ingurunean industria eta teknologia ezartzea. <i>Planificación, establecimiento y prestación de servicios en el ámbito del desarrollo rural y del sector primario y la implantación industrial y tecnológica en el medio no urbano.</i>	100
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, S.A. (IHOBE) <i>Sociedad Pública de Gestión Ambiental, S.A. (IHOBE)</i>	Ingurumen-politiken garapena eta iraunkortasunaren kulturaren sustapenean laguntzea hainbat arlotan: klima-aldaketa, biodibertsitatea, lurzorua eta airearen kalitatea, hondakinak, ekoizpen eta kontsumo iraunkorrak eta hiri-ingurunea. <i>Contribuir al desarrollo de las políticas ambientales y de la cultura de la sostenibilidad en materia de cambio climático, biodiversidad, calidad del suelo y del aire, residuos, producción y consumo sostenible y medio ambiente urbano.</i>	100
Euskadiko Orkestra, A.B. <i>Orquesta de Euskadi, S.A.</i>	Artea eta musika-jarduerak sustatzea eta hedatzea. <i>Fomento y difusión del arte y la actividad musical.</i>	100
BASQUETOURL, Turismoaren Euskal Agentzia, S.A. <i>BASQUETOURL Agencia Vasca de Turismo, S.A.</i>	Euskadi sustatzeko sustapen-, merkaturatze- eta publizitate-ekintzak egikaritzea. <i>Ejecutar las acciones de promoción, comercialización y publicidad para la promoción de Euskadi.</i>	100
Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A. (SPRI) <i>Sociedad para la Transformación Competitiva, S.A. (SPRI)</i>	Euskal industria eraldatzea eta sustatzea. <i>Promoción y reconversión de la industria vasca.</i>	99,01
SPRILUR, S.A. (**)	Lurzoru eta eraikuntza industrialak sustatzea eta prestatzea. <i>Promoción y preparación del suelo y edificaciones industriales.</i>	7,73
Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. (VISESA) <i>Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (VISESA)</i>	Etxebizitzak sustatzea eta birgaitzea. <i>Promoción y rehabilitación de viviendas.</i>	79,36
Zumaiako Kirol Portua, S.A. <i>Puerto Deportivo de Zumaia, S.A.</i>	Zumaiako kirol portua sustatzea eta garatzea. <i>Promoción y desarrollo del puerto deportivo de Zumaia.</i>	51

(**) SPRIk partaidetza duen sozietetan begiratu zeharkako partaidetza.

(**) Ver participación indirecta en las sociedades participadas por SPRI.



Zeharkako partaidetza
Participación indirecta

EEEk partaidetza duen sozietateak
Sociedades participadas por el EVE

<u>Sozietateak</u> <u>Sociedades</u>	<u>Jarduerak</u> <u>Actividades</u>	<u>Partaidetza %tan</u> <u>% participación</u>
Energia eta meatzen aurrezte eta hazkuntzarako aztertegia, S.A. (CADEM) <i>Centro para el ahorro y desarrollo energético y minero, S.A. (CADEM)</i>	Energia gorde eta aurrezteari dagokionez azterketa, sustapena eta laguntza ematea. <i>Estudio, promoción y apoyo a la conservación y ahorro energético.</i>	100
Euskadiko Hidrokarburu Baltzua, A.B. <i>Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, S.A.</i>	Hidrokarburu likidoak eta gasezkoak aztertzea eta ikertzea, eta halaber hidrokarburoen garraio, biltegiatze, arazketa eta birfintzearekin loturiko jarduera guztiak gauzatzea. <i>Exploración e investigación de hidrocarburos líquidos y gaseosos, así como todas las actividades de transporte, almacenamiento, depuración y refinó relacionadas con los mismos.</i>	100
Udal Zentral Elkartuak, Udal Zentral Hidroelektrikoak Kudeatzeko Sozietatea, S.A. <i>Centrales Municipales Unidas, Sociedad para la Gestión de Centrales Hidroeléctricas Municipales, S.A. (UZESA)</i>	Udal titularitasunekoak edo Energiaren Euskal Erakundearekin titularitasuna elkarbanatutakoak diren «zentral elektriko txikiak» kudeatzea, eta baita energia elektrikoa sortzeko helburuz, azterlanak prestatzea eta teknikak sustatzea ere. <i>Gestión de las «Minicentrales Eléctricas» de titularidad municipal o compartida por el Ente Vasco de la Energía, así como la elaboración de estudios y promoción de técnicas para la producción de energía eléctrica.</i>	100
Harana - Kontrasta Hidroelektrikoa, S.A. <i>Hidroeléctrica Harana - Kontrasta, S.A.</i>	Energia-baliabide edo iturri berriztagarriez hornitutako instalazioetan energia erregimen berezian ekoizteko eta saltzeko zentralak ustiatzea. <i>Explotación de centrales para la producción y venta de energía en régimen especial para instalaciones abastecidas por recursos o fuentes de energías renovables.</i>	97,62
Sologoengo Zentral Hidroelektrikoa, S.A. <i>Central Hidroeléctrica de Sologoen, S.A.</i>	Energia elektrikoa sortzea. <i>Producción de energía eléctrica.</i>	93,63
Biscay Marine Energy Platform, S.A.	Itsas zabalean olatuak ikertu, erakutsi eta ustiatzeko itsas azpiegitura. <i>Infraestructura marina para la investigación, demostración y explotación de las olas en mar abierto.</i>	80



EITBk partaidetza duen sozietateak
Sociedades participadas por EITB

<u>Sozietateak</u> <u>Sociedades</u>	<u>Jarduerak</u> <u>Actividades</u>	<u>Partaidetza %tan</u> <u>% participación</u>
Eitbnet, S.A., Pertsona Bakarrek Sozietatea <i>Eitbnet, S.A., Sociedad Unipersonal</i>	Sozietatearen jarduerak informazio gizarterako edukiak, batik bat komunikazio eta zerbitzu-euskarri berriekin loturiko eduki elkarreragile, multimedia eta zibersarekoak produzitzea, erreproduzitzea, argitaratzea, saltzea, erostea, komertzialki ustiatzea eta banatzea. <i>Producción, reproducción, publicación, compra, venta, explotación comercial y distribución de contenidos para la sociedad de la información y especialmente los interactivos, multimedia y en red para los nuevos soportes de comunicación y servicio.</i>	100
Euskal Telebista, S.A., Pertsona Bakarrek Sozietatea <i>Televisión Vasca, S.A., Sociedad Unipersonal</i>	Ikusgaiak eta entzungaiak produzitzea eta transmititzea, herritar guztiei helarazteko, helburua informazioa, kultura, artea, aisialdi betegarriak, mezu komertzialak eta publizitatea zabaltzea izanik, baita hezkuntza-sistemari lagundu eta euskal kultura eta, batik bat, euskara sustatzeko eta garatzeko erakundeekin elkarlanean aritzea ere. <i>Producir y transmitir imágenes y sonidos simultáneamente, destinados al público en general con fines informativos, culturales, artísticos, recreativos, comerciales, publicitarios, así como cooperar con el sistema educativo, fomentar y difundir la cultura vasca y en especial el fomento y desarrollo del euskera.</i>	100
Eusko Irratia, S.A., Pertsona Bakarrek Sozietatea <i>Radiodifusión Vasca, S.A., Sociedad Unipersonal</i>	Irrati-uhinak erabiliz entzungaiak produzitu eta hedatzea, herritar guztiei helarazteko, helburua informazioa, kultura, artea, aisialdi betegarriak, mezu komertzialak eta publizitatea zabaltzea izanik, baita hezkuntza-sistemari lagundu eta euskal kultura eta, batik bat, euskara sustatzeko eta garatzeko erakundeekin elkarlanean aritzea ere. <i>Producción y difusión de sonidos mediante emisiones radioeléctricas destinados al público en general con fines informativos, culturales, artísticos, recreativos, comerciales, publicitarios, así como cooperar con el sistema educativo, fomentar y difundir la cultura vasca y en especial el fomento y desarrollo del euskera.</i>	100
Gasteiz Irratia, S.A., Pertsona Bakarrek Sozietatea <i>Radio Vitoria, S.A., Sociedad Unipersonal</i>	Irrati-uhinak erabiliz entzungaiak produzitu eta hedatzea, herritar guztiei helarazteko, helburua informazioa, kultura, artea, aisialdi betegarriak, mezu komertzialak eta publizitatea zabaltzea izanik, baita hezkuntza-sistemari laguntzea ere eta euskal kultura eta, batik bat, euskara sustatzeko eta garatzeko erakundeekin elkarlanean aritzea ere. <i>Producción y difusión de sonidos mediante emisiones radioeléctricas destinados al público en general con fines informativos, culturales, artísticos, recreativos, comerciales, publicitarios, así como cooperar con el sistema educativo, fomentar y difundir la cultura vasca y en especial el fomento y desarrollo del euskera.</i>	100



SPRIk partaidetza duen sozietateak
Sociedades participadas por SPRI

<u>Sozietateak</u> <u>Sociedades</u>	<u>Jarduerak</u> <u>Actividades</u>	<u>Partaidetza %tan</u> <u>% participación</u>
SPRILUR, S.A.	Lurzoru eta eraikuntza industrialak sustatzea eta prestatzea. <i>Promoción y preparación del suelo y edificaciones industriales.</i>	92,27
Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A. <i>Gestión de Capital Riesgo del País Vasco</i> SGEGR, S.A.	Arrisku-kapitalaren sozietate eta funtsen ondareak administratzea, ordezkatzeta eta kudeatzea. <i>Administración, representación y gestión de patrimonios de sociedades y fondos de capital riesgo.</i>	73
Teknologi Elkartegia, S.A. <i>Parque Tecnológico, S.A.</i>	Bizkaiko teknologiaren eta berrikuntzaren garapenean laguntzea, enpresen, agente teknologikoen eta unibertsitateen artean ezagutzatruke eta teknologia-transferentzia bultzatuz, enpresa berritzaileen sorrera eta hazkundera sustatuz eta kokalekuak eta instalazioak eskainiz. <i>Contribuir al desarrollo tecnológico y de la innovación en Bizkaia, favoreciendo el intercambio de conocimiento y la transferencia de tecnología entre empresas, agentes tecnológicos y universidades, impulsando la creación y el crecimiento de empresas innovadoras y ofreciendo espacios e instalaciones.</i>	67,26
Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, S.A. <i>Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa, S.A.</i>	Enpresa-ekimen eta inbertsioa eragitea eta sustatzea azpiegiturak eraikiz enpresa berritzaile eta goi-teknologiadunak kokatzeko. <i>Estimular y promover la iniciativa y la inversión empresarial, mediante la construcción de infraestructuras para la localización de empresas innovadoras y de alta tecnología.</i>	65,99
Arabako Teknologia Elkartegia, S.A. <i>Parque Tecnológico de Álava, S.A.</i>	Enpresa-ekimen eta inbertsioa eragitea eta sustatzea azpiegiturak eraikiz enpresa berritzaile eta goi-teknologiadunak kokatzeko. <i>Estimular y promover la iniciativa y la inversión empresarial, mediante la construcción de infraestructuras para la localización de empresas innovadoras y de alta tecnología.</i>	64,07
Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, A.B. <i>Centro de Empresas e Innovación de Álava, S.A.</i>	Enpresa-jarduera eraberritzaile berriak prestatzea eta garatzea beharrezkoak diren zerbitzuak eskainiz. <i>Prestación de los servicios necesarios para la preparación y desarrollo de nuevas actividades empresariales innovadoras.</i>	51



SPRILURrek partaidetza duen sozietateak
Sociedades participadas por SPRILUR

<u>Zeharkako partaidetza</u> <u>Participación indirecta</u>	<u>Partaidetza %</u> <u>% participación</u>
Arabako Industrialdea, S.A.	56,75
Urolako Industrialdea, S.A.	53,23
Abanto-Zierbenako Industrialdea, S.A.	51
Arratiako Industrialdea, S.A.	51
Beterri Kostako Industrialdea, S.A.	51
Bidasoa Oarsoko Industrialdea, S.A.	51
Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S.A.	51
Busturialdeko Industrialdea, S.A.	51
Deba Bailarako Industrialdea, S.A.	51
Goierri Beheko Industrialdea, S.A.	51
Lanbarren Parke Logistikoa, S.A.	51
Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra, S.A.	51

Norberaren eskualdeko udalerrietan industria-arloan ekimenak eta inbertsioak eragitea eta suspertzea dira bere jarduerak, eta hartarako hirigintza-eremuan sustatuko dituen enpresak ezartzeko eta pabiloien eta eraikin osagarrien industriguneak eraikitzeke gai diren lurak.

Su objeto social lo constituye el estímulo y la promoción de la iniciativa y la inversión industrial en sus respectivos términos municipales, mediante la promoción urbanística de suelo apto para la implantación empresarial, y la construcción de complejos industriales de pabellones y edificaciones complementarias.

OSAKIDETZAK partaidetza duen sozietateak
Sociedad participada por OSAKIDETZA

<u>Sozietatea</u> <u>Sociedad</u>	<u>Jarduera</u> <u>Actividad</u>	<u>Partaidetza %tan</u> <u>% participación</u>
Osatek, S.A.	Irudi bidezko diagnostiko-zerbitzuen kudeaketa, administrazioa eta ustiapena egitea, baita laguntza jarduerarekin erlazionatutako ikerketa eta irakaskuntza ere. <i>Gestión, administración y explotación de servicios de diagnóstico por imagen, así como investigación y docencia relacionadas con la actividad asistencial.</i>	100



Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos-ek partaidetza duen sozietateak
Sociedad participada por Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos

<u>Sozietatea</u> <u>Sociedad</u>	<u>Jarduera</u> <u>Actividad</u>	<u>Partaidetza %tan</u> <u>% participación</u>
Euskotren participaciones, S.A.	Trenbideko garraioaren eremuan balio higigarriak, higiezinak eta partaidetza sozialak erostea, lagatzea, edukitzea, baliatzea, administratzea, kudeatzea eta negoziatzea. <i>Adquisición, cesión, tenencia, disfrute, administración, gestión y negociación de valores mobiliarios, inmuebles y participaciones sociales, en el ámbito del transporte ferroviario.</i>	100

Euskal Sektore Publikoko Fundazioak
Fundaciones del Sector Público Vasco

<u>Erakundeak</u> <u>Entidades</u>	<u>Jarduerak</u> <u>Actividades</u>	<u>Partaidetza %tan</u> <u>% participación</u>
HAZI Fundazioa <i>Fundación HAZI</i>	Lehen sektorearen, landa-eremuaren, itsasertzaren eta nekazaritzako elikagaien industriaren lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea, sustatzea eta garatzea. <i>Impulsar, promover y desarrollar la competitividad, sostenibilidad e innovación del sector primario, el medio rural y litoral y la industria agroalimentaria.</i>	100
Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa <i>Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria</i>	Euskal gazte jendearengan musikak dituen baloreak sustatzea musikarako prestakuntzan laguntza emanez, profesional mailan aritu aurretik. <i>Promoción de valores musicales entre los jóvenes vascos, mediante el apoyo a su formación previa al ejercicio musical profesional.</i>	100
MUSIKENE - Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua <i>Fundación Privada para el Centro Superior de Música del País Vasco - MUSIKENE</i>	Goi mailako musika-irakaskuntzarekin eta Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiarekin lotutako ekimenak eta ekintzak kudeatu, sustatu eta laguntzea, irabazte-asmorik gabe. <i>Gestión, promoción y soporte, sin afán de lucro, de iniciativas y actividades relacionadas con la enseñanza de la música de grado superior y con el Centro Superior de Música del País Vasco.</i>	100
Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa <i>Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias</i>	Euskadiko osasun sisteman berrikuntza eta ikerketa sustatzea. <i>Promoción de la innovación y de la investigación en el sistema sanitario del País Vasco.</i>	100
Zahartzeari buruzko Ikerketa Zentro Nazionalaren Fundazioa <i>Fundación Centro Nacional de Investigación en Envejecimiento-CNIE</i>	Mugako ezagutza zientifikoa sortzea, zahartzearen arrazoiak zientifikoki ebaztea ahalbidetuko duen ezagutza. <i>Generación de conocimiento científico de frontera que permita avanzar en la resolución científica de las causas del envejecimiento.</i>	100



<u>Erakundeak</u> <u>Entidades</u>	<u>Jarduerak</u> <u>Actividades</u>	<u>Partaidetza %tan</u> <u>% participación</u>
Euskadi Kirola Fundazioa (***) Fundación Euskadi Kirola (***)	Goi mailako euskal kirolaren garapen egokia sustatzea; halaber, euskal kirolarien goi mailako emaitzak lortzea. <i>Impulsar un adecuado desarrollo del deporte vasco de alto nivel, así como la consecución de resultados de alto nivel por parte de los deportistas vascos y vascas.</i>	100
ELIKA - Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa (***) Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria - ELIKA (***)	Nekazaritzako elikagaien segurtasunaren alorreko informazioa eta aholkuak ematea, eta sustatzea. <i>Informar, asesorar y promover en materia de seguridad agroalimentaria.</i>	99,45
Burdinbidearen Euskal Museoaren Fundazioa (***) Fundación del Museo Vasco del Ferrocarril (***)	Euskal Herriko burdinbideen ondare historikoa biltzea, gordetzea, aztertzea eta hedatzea; horretarako, burdinbidearen euskal museoa kudeatzeaz, zuzentzeaz, mantentzeaz, gordetzeaz eta sustatzeaz arduratuz. <i>Reunir, conservar, estudiar y divulgar el patrimonio ferroviario histórico de Euskadi mediante la dirección gestión, mantenimiento, conservación y promoción del museo vasco del ferrocarril.</i>	97,5

(***) Zuzeneko eta zeharkako partaidetza.

(***) Participación directa e indirecta.

Euskal Sektore Publikoko Partzuergoa
Consortio del Sector Público Vasco

<u>Erakundea</u> <u>Entidad</u>	<u>Jarduera</u> <u>Actividad</u>	<u>Partaidetza %tan</u> <u>% participación</u>
Haurreskolak	Haur eskolen kudeaketa integrala eta hiru urtetik beherakoen laguntza eta hezkuntza arreta. <i>Gestión integral de las escuelas infantiles y la atención asistencial y educativa de los menores de tres años.</i>	100

2. Kontuak aurkezteko oinarriak

2013ko ekitaldiko urteko kontuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Planean ezartzen diren arauari jarraituz aurkezten dira. Plan hori Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko Aginduaren bidez onartu zen.

Aipatutako kontuak, hain zuzen ere, balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta diru-fluxuen egoera-orria, osatzen dituzten dokumentuetan biltzen diren zenbakiak eurotan adierazita daude.

Urteko kontu horiek, hainbat aldagairekin konparazioak egite aldera (balantzeko partida bakoitza, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta diru-fluxuen egoera-orria), 2013ko ekitaldiko zenbakiez gain, aurreko ekitaldiari dagozkion zenbakiak ere aurkezten dituzte. Horrela, 2012ko ekitaldiko finantza-egoerak

2. Bases de presentación de las cuentas

Las cuentas anuales del ejercicio 2013 se presentan de acuerdo con las normas establecidas en el Plan de Contabilidad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Orden de 25 de junio de 2012, del Consejero de Economía y Hacienda.

Las cifras contenidas en los documentos que componen las citadas cuentas, el balance, la cuenta del resultado económico patrimonial, el estado de cambios en el patrimonio neto y el estado de flujos de efectivo, están expresadas en euros.

Dichas cuentas anuales presentan a efectos comparativos, con cada una de las partidas del balance, de la cuenta del resultado económico patrimonial, del estado de cambios en el patrimonio neto y del estado de flujos de efectivo, además de las cifras del ejercicio 2013, las correspondientes al ejercicio anterior. En este sentido los estados



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

hainbat doitze eta birsailkatze dakarte euren aurkezpena eta saldo-bilakaera alderatzeko asmoz.

2013ko ekitaldian beharrezkoak diren doikuntzak egin dira 2011ko ekitaldiaren aurretik Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpe dauden ikastetxe publikoetako udal-jabetzako eskola eraikinetako inbertsioak ibilgetu materialeko elementu moduan erregistratzeko. Horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Planaren arabera aktibotzat hartzen dira. Dokintza horien ondorioak honako hauek izan dira:

Ibilgetu materiala	290.597.228
Ibilgetu mater. amortiz. metatua	(47.554.209)
Aurreko ekitaldietako emaitzak	243.043.019

financieros del ejercicio 2012 incorporan determinadas adaptaciones y reclasificaciones con objeto de mejorar su presentación y la comparabilidad de los saldos.

En el ejercicio 2013 se han realizado los ajustes necesarios para registrar como inmovilizado material las inversiones realizadas con anterioridad al ejercicio 2011 en edificios de propiedad municipal de los centros docentes públicos dependientes del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, que de acuerdo con el Plan de Contabilidad Pública de la CAE cumplen con la definición de activo. El efecto de los ajustes anteriores ha sido el siguiente:

<i>Inmovilizado material</i>	<i>290.597.228</i>
<i>Amortiz. acum. inmovil. material</i>	<i>(47.554.209)</i>
<i>Resultados de ejercic. anteriores</i>	<i>243.043.019</i>

3. Aintzatespen- eta balioespen-arauak

Honako kontabilitate-irizpide hauek aplikatu dira:

- Ibilgetu materiala: Ibilgetu materialen eskuratzek erositako prezioan kontabilizatzen dira, eta linealki amortizatzen dira ondasunen balio-bizitzaren arabera.
- Ibilgetu ukiezina: Ibilgetu ukiezinarene eskuratzek erositako prezioan daude kontabilizatuta, eta linealki amortizatzen dira ondasunen balio-bizitzaren arabera.
- Aktibo finantzarioak: Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen inbertsioak kostuaren arabera balioesten dira baina, hala badagokio, narriaduragatiko balio-zuzenketa zenbatekoa kentzen da. Berdin balioesten dira beste erakunde batzuetan ondarean egindako inbertsioak, merkatu aktibo batean negoziatzen ez diren ondare-tresnak direlako.

Diruz lagundutako interesekin epe luzera emandako maileguei dagokienez, diruaren 2013 ekitaldirako legezko interes-tasa aplikatuz eguneratutako balioan balioesten dira, ez-eguneratzeak eragin txikia duenean izan ezik. Maileguen egungo balioaren eta emandako balioaren arteko aldea emandako diru-laguntza gisa egotzen da.

SOCADE eta LUZARO erakunde laguntzaileen bitartez kudeatutako programen bidez eman ziren Itzuli beharreko aurrerakinen kasuan, balio nominalen balioetsi dira, baina narriaduragatiko balio-zuzenketa zenbatekoa kenduta.

Epe laburrean kobratu beharreko kreditu eta partidak balio nominalen balioesten dira, eta fidantzak eta gordailuak emandako zenbatekoaren arabera.

3. Normas de reconocimiento y valoración

Se han aplicado los siguientes criterios contables:

- Inmovilizado material: Las adquisiciones de inmovilizado material se contabilizan al precio de adquisición y se amortizan linealmente en función de la vida útil de los bienes.*
- Inmovilizado intangible: Las adquisiciones de inmovilizado intangible figuran contabilizadas a su precio de adquisición y se amortizan linealmente en función de la vida útil de los bienes.*
- Activos financieros: Las inversiones en el patrimonio de entidades del grupo, multigrupo y asociadas se valoran por su coste menos, en los casos que corresponda, el importe de las correcciones valorativas por deterioro. De igual modo se valoran las inversiones en el patrimonio de otras entidades, por tratarse de instrumentos de patrimonio que no se negocian en un mercado activo.*

Los préstamos concedidos a largo plazo con intereses subvencionados se valoran por su valor actualizado aplicando el tipo de interés legal del dinero para el ejercicio 2013, excepto en los casos en los que el efecto de su no actualización resulta poco significativo. La diferencia entre el valor actual de los préstamos y el valor entregado se imputa como subvención concedida.

En el caso particular de los anticipos reintegrables concedidos por diversos programas gestionados por medio de las entidades colaboradoras, SOCADE y LUZARO, éstos se han valorado por su valor nominal menos las correcciones valorativas por deterioro.

Los créditos y partidas a cobrar a corto plazo se valoran por su valor nominal, y las fianzas y depósitos constituidos por el importe entregado.



d) Pasibo finantzarioak: Zorpetze publikoa amortizatutako kostuaren arabera balioesten dira. Sortutako interesak, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz, ekitaldiko emaitzan kontabilizatzen dira.

Epe luzerako gainerako pasibo finantzarioak balio nominalean balioesten dira, eguneratzeak eragin txikia baitu.

e) Epe laburrean ordaindu beharreko partidak balio nominalean balioesten dira, eta fidantzak eta gordailuak jasotako zenbatekoaren arabera.

f) Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak: Aktibo horiek eraiki edo eskuratzearekin lotutako kostuak izakin gisa hartzen dira, eta jasotako sarrerak aurrerakin gisa. Erakunde hartzaileari emateko unean, sarrerak aintzatetsi egiten dira, eta diru-laguntza gisa egozten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak finantzatutako kostuak.

g) Sarrerak eta gastuak: Sarrerak eta gastuak sortzen diren aldiaren arabera aitortzen dira kontabilitatean, eta ez kobratzen edo ordaintzen direnean.

h) Jasotako transferentziak: Jasotako transferentziak sarrera gisa erregistratzen dira, jasotzeko eskubidea sortzen den ekitaldian.

i) Emandako diru-laguntzak: Emandako diru-laguntzak aurrekontu-obligazioa aitortzen denean erregistratzen dira.

j) Kontuen sailkapena: Balantzean aurkezteko ondorioetarako, kontuak ez dira berriro sailkatzen ekitaldiaren amaieraren mugaegunaren arabera, eta hasierako baldintzen arabera geratzen dira sailkatuta.

d) Pasivos financieros: El endeudamiento público se valora por su coste amortizado. Los intereses devengados se contabilizan como resultados del ejercicio utilizando el método del tipo de interés efectivo.

El resto de pasivos financieros a largo plazo se valoran por el nominal, al resultar poco significativo el efecto de su actualización.

e) Las partidas a pagar a corto plazo se valoran por su valor nominal, y las fianzas y depósitos por el importe recibido.

f) Activos construidos o adquiridos para otras entidades: Los costes asociados a la construcción o adquisición de estos activos se reconocen como existencias y los ingresos recibidos como anticipos. En el momento de la entrega a la entidad destinataria, se reconocen los ingresos y se imputan como subvención los costes financiados por la Administración General de la CAE.

g) Ingresos y gastos: Los ingresos y los gastos se reconocen contablemente en función del periodo en que se devengan y no cuando se produce su cobro o pago.

h) Transferencias recibidas: Las transferencias recibidas se registran como ingresos en el ejercicio en que surge el derecho a su percepción.

i) Subvenciones concedidas: Las subvenciones concedidas se registran cuando se reconoce la obligación presupuestaria.

j) Clasificación de cuentas: A efectos de presentación en el balance, no se procede a la reclasificación de las cuentas de acuerdo con su vencimiento al cierre del ejercicio, figurando clasificadas en función de sus condiciones iniciales.



4. Ibilgetu materiala

Epigrafe honetako partidetan ondorengo mugimenduak izan dira:

4. Inmovilizado material

Los movimientos de las partidas incluidas en este epígrafe han sido los siguientes:

Eurotan
En euros

KONTZEPTUA CONCEPTO	Lurrak Terrenos	Eraikuntzak Construcciones	Azpiegiturak Infraestructuras	Ondare historikoaren ondasunak Bienes del patrimonio histórico	Bestelako ibilgetu materiala Otro inmovilizado material	Egite-bidean den ibilgetua eta aurrerakinak Inmovilizado en curso y anticipos	GUZTIRA TOTAL
KOSTUA COSTE							
2013ko urtarrilaren 1eko saldoa Saldo al 1 de enero de 2013	626.748.567	1.904.310.123	148.600.080	4.191.517	596.741.248	169.158.413	3.449.749.948
Altak Altas	3.907.523	300.160.666	1.309.774	6.534	17.538.579	41.730.879	364.653.956
Bajak Bajas	--	(26.305.713)	--	--	(48.329.045)	(2.478.532)	(77.113.291)
Intsuldaketak Traspasos	100.000	77.635.779	663.740	--	2.212.723	(80.220.932)	391.309
2013ko abenduaren 31ko saldoa Saldo al 31 de diciembre de 2013	630.756.090	2.255.800.854	150.573.594	4.198.051	568.163.505	128.189.828	3.737.681.922
AMORTIZAZIOA AMORTIZACIÓN							
2013ko urtarrilaren 1eko saldoa Saldo al 1 de enero de 2013	--	421.482.724	16.728.012	--	381.246.511	--	819.457.247
Zuzkidurak Dotaciones	--	95.588.024	3.416.986	--	61.983.463	--	160.988.473
Bajak Bajas	--	(5.867.008)	--	--	(48.329.045)	--	(54.196.053)
2013ko abenduaren 31ko saldoa Saldo al 31 de diciembre de 2013	--	511.203.740	20.144.998	--	394.900.929	--	926.249.667
KONTABILITATE BALIO GARBIA VALOR NETO CONTABLE							
2013ko urtarrilaren 1eko saldoa Saldo al 1 de enero de 2013	626.748.567	1.482.827.399	131.872.068	4.191.517	215.494.737	169.158.413	2.630.292.700
2013ko abenduaren 31ko saldoa Saldo al 31 de diciembre de 2013	630.756.090	1.744.597.114	130.428.596	4.198.051	173.262.576	128.189.828	2.811.432.255

Ibilgetu materialen eskuratzeak erositateko prezioan kontabilizatzen dira eta honako ehunekoei jarraiki amortizatzen dira:

Eraikuntzak %1 - 7,14
Azpiegiturak %2 - 5
Bestelako ibilgetu materiala %1,05 - 22,22

Las adquisiciones de inmovilizaciones materiales se contabilizan al precio de adquisición y se amortizan en función de los siguientes porcentajes:

Construcciones 1 - 7,14%
Infraestructuras 2 - 5%
Otro inmovilizado material 1,05 - 22,22%



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

2013ko ekitaldian honako erakunde hauei atxikipenean emandako ondasunen bajak erregistratu dira:

- Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca zuzenbide pribatuko erakunde publikoari; kontabilitate-balio garbia: 19.021.254 euro.
- Euskal Trenbide Sarea (ETS) zuzenbide pribatuko erakunde publikoari; zenbatekoa: 391.500 euro.
- OSAKIDETZA - Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoari; kontabilitate-balio garbia: 125.402 euro.

Halaber, 2013ko ekitaldian lagapen bidez jasotako ondasunen altak erregistratu dira:

- Hainbat udaletatik, etxebizitza publikoa sustatzeko; kontabilitate-balio garbia: 1.952.516 euro.
- Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa, S.A. izeneko sozietate anonimotik; zenbatekoa: 62.886 euro.

Eraikuntzen kontzeptuan 243.043.019 euroko kontabilitate-balio garbia duten altak sartu dira (kostua: 290.597.228 eta amortizazio metatua: 47.554.209) 2011ko ekitaldia aurretik ikastetxe publikoetako udal-jabetzako eraikinetan egindako obrak ibilgetu materialei gehitzeari dagozkionak.

Durante el año 2013 se han registrado bajas de bienes entregados en adscripción a las siguientes entidades:

- *Al ente público de derecho privado Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca por un valor neto contable de 19.021.254 euros.*
- *Al ente público de derecho privado Red Ferroviaria Vasca (ETS) por un importe de 391.500 euros.*
- *Al ente público de derecho privado OSAKIDETZA-Servicio Vasco de Salud por un valor neto contable de 125.402 euros.*

Asimismo, durante el año 2013 se han registrado altas de diversos bienes recibidos en cesión:

- *De diversos ayuntamientos con destino a la promoción de vivienda pública, por un valor neto contable de 1.952.516 euros.*
- *De la sociedad anónima Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazio, S.A. por un importe de 62.886 euros.*

En el epígrafe de construcciones se incluyen altas por un valor neto contable de 243.043.019 euros (coste: 290.597.228 y amortización acumulada: 47.554.209) que corresponden a la incorporación al inmovilizado material de las obras realizadas en centros docentes públicos de propiedad municipal con anterioridad al ejercicio 2011.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

5. Ibilgetu ukiezina

Epigrafe honetako partidetan ondorengo mugimenduak izan dira:

5. Inmovilizado intangible

